

EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2019



**Bilbao**

**Az**  
Azkuna Zentroa  
AlhóndigaBilbao



*Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao leku egokia  
da kultura praktika, prozesu, esperientziatarako  
espazio gisa bizitzeko.*



- 7 Juan Mari Aburto. Bilboko Alkatea
- 9 *Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentroa*. Fernando Pérez. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren Zuzendaria
- 14 Sorkuntza garaikideko katalizatzaileak

## PROGRAMAZIOA

### /Arte garaikidea

- 18 Angela de la Cruz. *Homeless*. Erakusketa
- 20 Peter Weibel & Matthias Gommel. *FLICK\_BI*. Argazki-galeria herritarra. Instalazioa
- 22 *consonni radioAz-rekin*. Egonaldi artistikoak
- 24 Aitor Saraiba. *Beste herentzia*. Fatxada
- 26 *Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa*. Erakusketa
- 28 *Laagencia*. Arte proiektuen bulegoa. Akademia
- 30 Higinia Garay. *Bigarren begiratua*. Fatxada

### /Arte biziak

- 32 *Cellule D'intervention Metamkine + Garazi Gorostiaga*. Musika eta soinua
- 34 Lökke / Olatz de Andrés. *The Big Game*. Dantza
- 36 *Matarile. Last Call / Stage*. Dantza, antzerkia, performancea
- 38 Molly Nilsson. Musika
- 40 *Moon Produkzioak. Las muertes de los otros*. Irrati-antzerkia
- 42 *Kanpai. Sayonara Baby*. Dantza
- 46 Taku Sugimoto, Félicie Bazelaire eta Leo Duplex + Andrea Berbois eta Garazi Navas. Musika eta soinua
- 48 Sun Araw. Musika
- 50 *Xake Produkzioak. Lur*. Antzerkia
- 52 Ibon Salvador & Joseph Simon. *BLUR #1 & Pseudo-chameleon*. Dantza
- 54 *Unclose*. Musika
- 56 Pierre Berthet & Rie Nakajima. Musika eta soinua
- 58 *Loraldia Festibala 2019 + Ados Teatroa Zapatila gorridun mutikoa*





### **/Zinema eta ikusentzunezkoak**

- 58 Zinemaren historiako 50 harribitxi Zinemateka
- 66 *La memoria del cuerpo: formas en el espacio tiempo.*  
Roberto Menéndezzen dokumentala
- 68 *Golem Arte.* Film dokumentalen zikloa

### **EGONALDI ARTISTIKOEN PROGRAMA**

- 72 Sorkuntzako ekintzak bultzatzen
- 73 2019 Deialdiak. Dantza Garaikidea / Praktika Artistikoak
- 74 consonni radio Az-rekin. Deialdi publikoa
- 75 Pierre Berthet & Rie Nakajima. Musika Esperimentala

### **HEZKUNTZA PROGRAMA**

- 80 Laboratorio PlayTime
- 81 Tailerra: soinu-arte eta musika esperimentalaren hastapenak
- 82 Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak
- 83 Do It Yourself. Ordenagailu bidezko musika esperimentala, Pure Datarekin
- 84 Ezagutu Mediateka BBK
- 85 Jokuplay
- 86 Robotika, programazio eta diseinuko tailerrak

### **AGENDA**

- 90 Agenda
- 98 Informazio orokorra



Zentroa



2010. urtean ateak zabaldu zituenetik, Azkuna Zentroak –Bilbo osoak bezala– sendotu egin du nazioartean duen kokapena, kultura kalitatezko hiriaren paradigmatzat hartuta. Egunero-egunero lanean aritu gara hori lortzeko, esparru desberdinetan, agente askorekin elkarlanean, eta izan zitezkeen ikusle-mota guztiak gogoan izanda.

Gaur egun, Bilbo bizirik dagoen hiri bat da. Nabaria da arteak, musikak eta arte eszenikoek herritarren interesa pizten dutela. Kultura garaikidea ageri-agerian dago gure kaleetan eta zentroetan; horri esker lortu dugu, hain zuzen, sinergiak sortzea eta pertsonak erakartzea, gu ezagutzera etor zitezen.

Nire ustez, bide horretatik egin behar dugu aurrera, esperientzia berri, diziplina kultural eta elkarlaneko sare berrietara zabalduz, hala bertako ehunekoetara, nola nazioartekoetara; ezinbestez aritu beharko dugu haiekin elkarlanean, Bilbok mapa globalean erraz identifikatzeko moduko toki hori izaten jarraitzeko.

Udalak ahalegina egiten jarraitzen du, kultura gure bizitzako protagonista izateko, eta horri bidea ematen dion hiriko ehun artistikoari laguntza emateko. Azkuna Zentroa toki irekia, inklusiboa, askotarikoa eta plurala da, ikusle-mota guztiekin komunitate hori sortu behar duena.

Azkuna Zentroak etapa berri bati ekin dio, hasitako ibilbideari jarraipena emateko, eta, horrez gain, hazten jarraitzeko, zentroak eta hiri osoak nazioartean lortutako onespena sendotzeko.





# Gizartea eta Kultura Garaikideko Zentroa

Fernando Pérez

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren Zuzendaria

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok etapa berriari ekin dio, Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentro gisa, begirada hemen eta nazioartean jarrita, eta ikusleen komunitate desberdinekin harremanetan jartzeko irekirik.

Gure bizitza etengabe ari da eraldatzen, gero eta konplexuagoa eta aldakorragoa agertzen zaigun ingurunean. Ingurune horretan, ezinbestez hausnartu behar dugu geure edukiez, eta berrikuntzak egin behar ditugu, forma, espazio eta eredu berriak proposatu behar dizkiogu gizarteari. Eraldatzeko ideia horri helduta, Aisialdiko eta Kulturako Zentroa izan beharrean, Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentroa izango gara hemendik aurrera. Gure ustez, Azkuna Zentroa gizartea eta kultura garaikidearen arteko 'lokairua' da, hizkuntza garaikideei buruzko hausnarketa eta jakintzaren sarbide unibertsala bultzatzen duen espazio baten bidez.

Artistek, sortzaileek eta herritarrek kultura garaikidera sartzeko moduko plataforma izan behar du Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok. Erabilera desberdinak eta ikusle-mota desberdinak dituen zentro bat gara, eta, beraz, agertoki ezin hobea ere bai, testatzeko, prototipeatzeko, esperimintatzeko, eta artearekin eta artistekin kulturara beste modu batera hurbiltzeko. Kultura praktika, prozesu eta esperientziarako espazio gisa bizitzeko lekua.

Kultura bultzatuz eredu partekatatu batetik abiatuta, kultura- eta gizarte-esparruko agenteekin sareak sustatzen, pertsonen, komunitateen, enpresen eta elkarten konplizitateaz, estratu desberdinagoak sortzen.

Programazioa diziplina desberdinetako pertsonekin lantzen, proposamenak era askotako formatuekin aberasten eta balioesten, ikusleen komunitateen parte-hartze aktiboa sustatzeko.

Azkuna Zentroko ateak zabalik egoten dira urteko egun guztietan, programazio aktibo batekin, proposamen bakoitzaren inguruan sortzen ditugun erakusketen, egonaldi artistikoen, tailerren, hitzaldien, zikloen, kontzertuen eta zuzeneko ikuskizunen bidez parte hartu ahal izateko. 'Gutxiengoek eratzen duten gehiengo' horiengana hurbildu nahi dugu, era pasiboan kontsumitu beharrean proaktibitatea bultzatzen duen programazio batekin.


Horretarako hezkuntza funtsezkoa eta zeharkakoa da. Ezinezkoa da artea eta hezkuntza bereiztea. Jakintza kritikoa sortu behar dugu, artearen eta artisten bidez gizartea eraldatzeko, haiek baitute hizpide berrikuntza, arriskua... haiek ematen baitigute aukera munduari era kritikoa begiratzeko.

Entzun, hitz egin, lagun egin, hurbildu, erraztu, esperimintatu, partekatu... Hori guztia izan nahi du Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaok, Bilboko Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentroak.

////////////////////////////////////

Azkuna Zentroa gizartea eta kultura garaikidearen arteko 'lokairua' da, hizkuntza garaikideei buruzko hausnarketa eta jakintzaren sarbidea bultzatzen duen espazio baten bidez.

////////////////////////////////////



## Programa Proiektua

Etapa berria barruko eta kanpoko hausnarketaren emaitza den bost urterako Programa Proiektuaren bidez egituratuko da. Horretarako, 'entzun/escuchar' prozesua garatu dugu, eta, haren bidez, hausnartzeko gonbit egin diegu gizarteari, artistei, sektoreko profesionaleri, administrazioei, zentro artistikoei eta konplize diren erakundeek.

Dinamika horietan lortutako ekarpenek bide eman digute erkatzeko, zalantzan jartzeko, berriro doitu eta proposamenak jasotzeko, inguruneak eta erabiltzaileek dituzten beharizanezi buruz guztien arteko ulermena abiaburutzat hartuta.

Orain dugun planteamendu estrategikoari jarraiki, kulturako programazioa da Zentroaren ardatz nagusia, arte garaikidea,

arte biziak, zinema eta ikus-entzunezkoak, gizartea, kultura digitala eta literatura uztartuta. Lerro horiek elkarren arteko harremanean daude, eta programazio hedatua sortzen dute. Euskara zeharkako elementu gisa hartuta sorkuntzan modu naturalean, eta ingelesa normalizatu nahian.

Programazio egonkorra, ereduzkoa hiriarentzat, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao forma artistiko berrien epizentroa izan dadin, bertakoa aintzat hartuz eta nazioartean orekaz kokatuz, eta Bilboko beste espazio batzuetara hedatuko diren programekin eta jarduerekin.

## Irekia eta konektatuta

Aldi berri honetan, konexioak sustatuko ditugu Azkuna Zentroaren barruan eta kanpoan. Bertatik nazioartera sareak



Kulturako programazioa da Zentroaren ardatz nagusia, arte garaikidea, zuzeneko artea, zinema eta ikus-entzunezkoak, gizarte, kultura digitala eta literatura uztartuta.

Lerro horiek elkarren arteko harremanean daude, eta programazioa hedatua sortzen dute.



ehunduz, eta sailak, eraikinak, zentroak eta pertsonak batzeko zubiak eraikiz. Espazioez berriz hausnartzen dugu, sortzeko, partekatzeko, hitz egiteko, eztabaidatzeko, ikasteko eta aztarna uzteko.

Azkuna Zentroa, zabalik eta Lantegiaren bidez konektatuta, hau da, sorkuntzaren ekoizpen eta esperimenezko lekuaren bidez; Mediateka, sorkuntzarako beste espazio bat, integrazioa eta kulturartekotasuna sustatzeko; Jarduera Fisikoko Zentroa, programazioan teilkatuta; eta Ataria, ekintza kulturalak hartu eta ekintza kulturaletara bideratua.

### **Programazio-ildo berriak**

#### **Arte garaikidea**

Egonaldi artistikoak, sinposioak, sorkuntzako laborategiak, erakusketak... egiten ditugu, arte plastiko eta bisualen, ikerkuntzaren, pentsamenduaren, kuratoretzaren eta forma berrien arlo hedatuan.

#### **Zinema eta ikus-entzunezkoak**

Modu zabalean heltzen diegu zinemari eta ikus-entzunezkoei, zine klasiko eta garaikideko programazio egonkorrekin, estreinaldiekin, jaialdiekin, gaikako zikloekin eta esperimetalagoak diren ikus-entzunezko narratiben programekin.

#### **Arte biziak**

'Arte biziak' dira edozein motatako lan eszenikoak edo eszenifikazioak erakustera eta/edo haien praktika eta ikerketara bideratuta dauden arte guztiak.



Programazio egonkorra lantzen dugu sorkuntza-erloko adituekin, dantza, performancea, forma berriak, soinu eta musika esperimentalak bateratuz.

### **Gizartea**

Elkarrizketa etengabea eta bi norabidetakoa dugu, gure errealitateaz ikertzen eta sakontzen duten programen, eztabaiden, sinposioen eta proiektuen bidez. Gogoeta, kritika, diseinu eta komunikazio-erloko profesionalekin.

### **Kultura digitala**

Kultura digitalarekin harremana duen programazio-ildo hau formulatzeko, programazio egonkorra jorratzen dugu bideo-jokoaren eta joera berrien inguruan.

### **Literatura**

Bultzada ematen dugu irakurketa, idazketa, ahozko transmisioa, eleberririk grafikoa, komikia, spoken word-a... ikertzeko, horretaz eztabaidatzeko eta ezagutzera emateko.

Eta berri honetan, hiru hilero aldizkari berri batekin gatz, hasi dugun eraldaketa eta lanean lankide eta lagun ditugun pertsona guztien lan-prozesuak islatzeko asmoz.

Barruan, hiru hilero honetako programazioa aurkituko duzu, besteak beste, [Iván de la Nuez](#) komisarioak gidatutako *Inoiz ez erreal* / *Beti egiazkoa* erakusketa berria, 13 artistak egindako hausnarketa kolektiboa, arteak kontatzeko eta guztiontzako espazio bat eraikitzeko eskaintzen dituen aukerei buruzkoa.

Bestalde, Alhóndigako fatxada interbentzio artistikorako espazioa izango da, diseinuko proiektuak erakusteko, besteak beste, [Aitor Saraibak](#) eta [Higinia Garayk](#) proposatutakoak.

Dantzako programazioari hasiera emateko, [Olatz de Andrés](#) koreografoaren *The Big Game* lanaren estreinaldia eta [Kanpainen \(Natalia de Miguel eta Jorge Jauregui\)](#) *Sayonara Baby* izango ditugu ikusgai, giza kondizioaren mapa bat erakutsiko digun pieza.





Zinemak eta dantzak bat egiten dute *La Memoria del Tiempo: Formas en el Espacio-Tiempo* lanean (Denboraren memoria: Espazio-denborako formak). Dokumental honetan, [Roberto Menéndezek](#) bidaia bat egiten du sorkuntza garaikidean barrena, Dantzako Sari Nazionala irabazitako bost lagunen eskutik.

Narratiba garaikidetik klasikora joz, Zinematekako ziklo berriak *Zinemaren historiako 50 harribitxi* aurkeztuko dizkigu, zeharkako errepasso bat proposatuz historiako filmik onenetatik, XX. mendeko ikonografiaren zati handi baten oinarria den irudia eraikitzeke balio izan duten maisulan batzuekin.

Eta klasikoetatik zinema sozialera joko dugu. Zinegoak, Bilboko Gaylesbotrans Zinema eta Arte Eszenikoen Nazioarteko Jaialdia, 15. ediziora iritsi da, zinema eta kultura sustatuz, gizartea eraldatzeko tresna modura eta gure gizartean dagoen dibertsitatea agerian jartzeko bide gisa. Jaialdiaren hedapen modura,



Etapa berri honi ekiteko, aldizkari bat aterako dugu hiru hilean behin, hasi berri dugun eraldaketa islatzeko.



**Xake Produksioak** euskal konpainiak *Lur* aurkeztuko digu, identitateari, dibertsitateari eta nerabezaroari buruzko istorio bat.

Musikak Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbako hainbat espazio hartuko ditu hiruhileko honetan, soinu esperimentalaren arloan nazioarteko erreferente diren [Cellule D'Intervention Metamkine](#), [Taku Sugimoto](#), [Félice Bazelaire](#) eta [Leo Duplex](#)-ekin eta, orobat, [Garazi Gorostiaga](#) eta bertako beste artista batzuekin. Atariko musikako programazioan, [Sun Araw](#) eta [Unclose](#) nabarmentzen dira.

Gonbit egiten dizuegu proposamen berri hauek aurkitzeko, esperimentatzeko eta pertsona guztiekin partekatzeko.



# Sorkuntza garaikideko katalizatzaileak

Artistak, komisarioak, kultura-eragileak... Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haiek gure proposamenak balioesten eta aberasten baitituzte, era askotako ikusleen komunitateei zuzendutako ekarpenekin.

Hauek dira urte honetako elkarrizketa irekietako batzuk, lehen hiru hilabetearen izango ditugunak.



Mabi Revuelta  
Artista




Ana Román  
Artista



Helena González  
Artista



Garazi Ansa, Laura Valles,  
Marc Badal  
Komisarioak



Ana Vallés  
Antzerki zuzendaria, aktorea



Natalia de Miguel  
Koreografoa eta dantzaria



Olatz de Andrés  
Koreografoa



Jaime de los Ríos  
Komisarioa



Sun Araw  
Musikaria



Iskandar Rementería  
Artista eta musikaria



Garazi Gorostiaga  
Interpretatzailea



Molly Nilsson  
Kantautorea



Aitor Saraiba  
Irudigilea




Higinia Garay  
Irudigilea



Joseph Simon & Ibon Salvador  
Koreografoak eta dantzariak



Lester Álvarez & José Ramón Ais  
Artistak



consonni  
Arte editoriala



©Magnum fotos



Cristina de Middel  
Artista, argazkigilea



Verónica Gerber Bicecci  
Artista



Glenda León  
Artista



Alicia Kopf  
Artista



Rita Indiana  
Artista



Kurt Cvejzel  
Artista

©Vanessa Montero



Joan Fontcuberta  
Artista, argazkigilea



Valerie Mrejen  
Bideo-artista



Iván de la Nuez  
Komisarioa: eta arte kritikaria



Kiko Faxas  
Artista



Guillem Nadal  
Artista



Gonzalo Elvira  
Artista



Oier Etxeberria  
Artista



Xabier Salaberria  
Artista







# Angela de la Cruz

## *Homeless*

Komisarioa: Carolina Grau



2017ko Arte Plastikoetako Sari Nazionala irabazi zuen Angela de la Cruzen *Homeless* erakusketa da artista honek Euskal Herrian izan duen lehen atzera begirakoa. Galiziako Arte Garaikideko Zentroarekin (CGAC) batera ekoitzi da eta Carolina Grauk egin ditu komisario-lanak.

Homeless erakusketak ibilbide bat egiten du Angela de la Cruzek 1996. eta 2018. Urteen artean egindako artelanetatik. 25 pieza hartzen ditu horretarako, batzuk jendaurrean inoiz erakutsi gabeak. Artistak mintzaira berezia garatu du, eta horrek aukera ematen dio koadroei kalitate eskulturala emateko, pinturaren eta eskulturaren arteko mugak ezabatuta.

Tituluak *Homeless* (1996) lanari egiten dio erreferentzia, bastidorea hautsi zueneko lehen piezari; orobat, etxerik gabeko pertsonen dagokie, beren ondasunak eta memoriari aldean eramaten dituzten horiei, pinturaren historian beti ainguratuta dauden artistaren obren modukoak baitira. Azkuna Zentroan egon ondoren, *Homeless* erakusketa CGAC-n (Arte Garaikideko Galiziako Zentroan) erakutsiko da, 2019ko otsailaren 22tik maiatzaren 19ra arte.

////////////////////////////////////

2018ko urriak 25 > 2019ko urtarrilak 20

Erakusketa Aretoa  
Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

**Ordutegia:**

Astelehenetan itxita

Asteartetik ostegunera eta  
igandeak: 11:00-20:00

Ostiralak, larunbatak, jai-egunak eta jai-egun bezperak:  
11:00-21:00

Kontsulta ezazu Gabonetako  
ordutegi berezia:  
[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

////////////////////////////////////

////////////////////////////////////



**ANGELA DE LA CRUZ** (A Coruña, 1965) Londresen bizi eta lan egin du. Filosofia eta Letretan lizentziaduna da Santiago de Compostelako Unibertsitatetik (1987) Londresera mugitu aurretik, non arte ederretako

ikasketak egin zituen Londreseko Goldsmiths College-ean (1994) eta eskultura eta teoria kritikoko ikasketak Slade School of Art eskolan (1996).

**CAROLINA GRAU** (Bartzelona, 1969) komisario independentea eta bideoartean aditua da. Artearen Historiako lizentzia eskuratu zuen Bartzelonako Unibertsitat de Barcelonan, eta Museoen eta galerien kudeaketako masterra egin zuen Londreseko Business School of City University ikastegian. Londresen bizi izan da 1995 eta 2010 bitartean, eta Bartzelonan bizi da eta lan egiten du gaur egun.

////////////////////////////////////

Erakusketari audiogida zerbitzu bat atxiki zaio, bisitaren osagarri. Entzun edo deskargatu materiala doan webgune honetan: [www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

Koprodukzioa:

CGAC CENTRO GALEGO DE ARTE CONTEMPORÁNEA

# Peter Weibel & Matthias Gommel

## *FLICK\_BI*

Argazki-galeria herritarra



*FLICK\_BI* pieza Peter Weibel eta Matthias Gommel artisten instalazio interaktibo bat da, autorretratuei buruzkoa. Piezan, gonbit egiten zaie ikusleei, nortasun-agiriaren tamainako argazki bat ateratzeko eta erakusketaren parte izateko

Zure erretratua, artelan bat. Txanpon bat sartu, eta argazki bat egiten da, ohiko eran, eta, horrez gain, Kulturen Atariko eguzkiaren pantailara ere igortzen da. Era berean, irudiak [www.zkm.de/flick\\_bi](http://www.zkm.de/flick_bi) web orrira igoko dira, aurreko erakusteetan ateratako milaka erretratuekin batera egoteko.

Instalazio honek aukera ematen die ikusleei haien argazkia espazio errealean ikusteko eta, gainera, erretratuan hartutakoa espazio birtualean egoteko. Espazio birtual eta lekuz aldatu honek sare sozialen izaera islatzen du. Selfien bidezko pertsonen autorrepresentazioa aldatzen hasi da pertsonak espazio publikoetan izaten zuten jokoera. Gaur egun, nola-halako garrantzia duen edozein ekitaldi akuilua izaten da, parte-hartzaileek selfieak egin ditzaten, eta horiek berehala hedatu daitezke mundu osoan barrena.

*FLICK\_BI* proiektuak erretratuek aro digitalean duten funtzionaltasuna iragartzen du.

*FLICK\_BI* instalazioak YOU\_ser erakusketa du abiaburu. ZKMko zuzendari Peter Weibel-ek komisariatu zuen 2007an, Alemaniako Karlsruhe-ko ZKM Arte eta Baliabide Teknologikoen Zentroan. Ordutik hona, proiektua Europako hainbat herrialdetan izan da, erakusketa eta museo askotan erakutsi da eta 100.000 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte.



**Abenduak 20 > Urtarrilak 27**

**Ordutegia:**

Astelehena-Osteguna: 7:00-23:00

Ostirala: 7:00-24:00

Larunbata: 8:30-24:00

Igandea: 8:30-23:00

Urtarrilak 1 eta 6, asteartea eta igandea: 10:00-23:00

Kulturen Ataria

1€



**FITXA ARTISTIKOA**

**Peter Weibel/Matthias Gommel (Alemania)**  
*FLICK\_BI* (2007/2018)

**Instalazio interaktiboa:**

Fotomatoia, 5 ordenagailu, 5 monitore, web artxiboa



 [www.gommel.com](http://www.gommel.com)

 [www.peter-weibel.at](http://www.peter-weibel.at)

Proiektua:



ARTE GARAIKIDEA / EGONALDI ARTISTIKOAK

OTS. 5 (astr.)

# consonni radio Az-rekin



consonni radio AZ-rekin consonni argitaletxea Az-ko kolektibo egoiliarra da 2018az geroztik. Testuinguru horretan, **consonni radio AZ-rekin** irratia sortu da, hitzarekin eta irratia entzutearekin esperimentatzeko eta kultura kritikoa zabaltzeko xedez. Entzun gaitzazu streaming bidez, edo zatoz saioaren bat zuzenean entzutera, atarian kokatutako gure irrati-estudio atseginean grabatzen ari garen bitartean. Eta emanaldiren bat entzuterik ez baduzu, ez kezkatu: online ere entzun gaitzakezu, consonni-ren webgunean, Az-renean, edo ivoox moduko irrati-plataformen bidez.

Umorea lagun, edozer gauzarekin ausartzen da Tania Arriaga Titania saioan, dela soinu-fikzioa dela elkarrizketa. Saioan, Idoia Jauregi (Euskadi Irratia), Yolanda eta Elenka (bar-teatro Badulake taberna-antzokia) nahiz Amaia Agirre eta Saioa Alkaiza bertsolariak entzungo ditugu, besteak beste. Alicia San Juan Jatorriez mintzatuko zaigu, Voces en el jardín saioaren lehen emanaldian, Jon Maia bertsolariarekin eta Txani Rodríguez idazlearekin. Emanaldi bakoitzean gai bat dakarkigu, eta gonbidatu berriak.

**2019an jarraipena izango dute saio horiek, eta beste bi transmisio ere sortuko dira. Bata Xabier Erkizia soinu-artista eta ekoizleak gidatua. Bestea, berriz, Arrate Hidalgo itzultzaile eta Ansible Fest fikzio-zientzia feministako Bilboko jaialdiaren antolatzaileetako batek gidatua.**

Programazio horren osagarri, gainera, deialdi publiko bat antolatu dugu. (informazio gehiago, 72. orrialdean). Zain izango gaituzu asteartero, 18:00etan, gure irrati-estudioan, emanaldiez zuzenean gozatzeko.



**Otsailaren 5etik aurrera, asteartero**

**18:00**

**Consonni radioren estudioa  
Kulturen Ataria**

**Sarrera dohainik**



 [www.consonni.org](http://www.consonni.org)

 [@consonniart](https://www.facebook.com/consonniart)

 [@\\_consonni\\_](https://twitter.com/_consonni_)

 [@\\_consonni\\_](https://www.instagram.com/_consonni_)

 [consonni radio](#)

consonni

# Aitor Saraiba

*Beste herentzia*





Aitor Saraibaren obra Arriquirreko fatxadan ikusgai izango da 2019ko lehen hiru hilabeteetan, hiriko paisaian zuzenean eragiten duen euskarri artistiko bihurturik eraikinaren ipar-mendebaldeko pareta.

Artista horrek emango dio hasiera, hain zuzen ere, Fatxada programa berriari, zeinak bihurtuko baitu Alhóndigaren kanpoaldea sortzaile garaikideen obra indibidualentzako interbentzio-gune.

Aitor Saraibak (Talavera de la Reina, 1983) marrazkia du oinarri, eta bere biografiari, egunerokotasunaren arteari lotzen dio, askotariko aplikazioak baliatuz: nola erakusketak hala nobela grafikoak, tartean direla zeramika, hormako interbentzioak eta ekintzak, baita argazkia, bideoa eta nobela grafikoa ere.

«Nire marrazkietan, irudiarekin eta testuarekin josten da kontakizuna; marrazki eta testu horiek beste formatu batzuetara itzuli ditut, gero, baina, betiere, marrazki dela nire obraren abiapuntu».

Aitor Saraiba.

////////////////////////////////////  
Urtarrilak 15 > Martxoak 15  
Plaza Arriquirre (Fatxada)  
Sarrera dohainik  
////////////////////////////////////

 [www.aitorsaraiba.com](http://www.aitorsaraiba.com)

 @aitorsaraiba

 @aitorsaraiba

 @aitorsaraiba

////////////////////////////////////




**AITOR SARAIBA**  
(Talavera de la Reina, 1983).

////////////////////////////////////

Bisitatu AzShop, Kulturen Atarian. Aitor Saraibaren zeramika margotu, postal eta printen sorta ederra duzu bertan aukeran.

# Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa



Artaud. Jamais réel et toujours vrai

«Nunca real y siempre verdadero» (Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa) Artauden esaldia artearen eta literaturaren arteko sinbiosiari buruzko erakusketa honen goiburua gisa ageri da. Esaldi horrek lotzen ditu, hain zuzen ere, erakusketan parte hartzen duten hamahiru artistak, zeinak diharduten artean edo literaturan eta sortu baitituzte artea genero literario modura eta literatura erakusketa-proiektu modura erabateko naturaltasunez tratatzen dituzten lanak. Kritika nabarmentzen da hemen: artean nahiz literaturan nagusi diren sistemen statu quoaren eta arlo horiek esparru itxi modura tratatzearen kontrako kritika, hain zuzen.

Eta horrexegatik egiten du bi arlo horien arteko mugak lausotzearen eta deuseztatzearen aldeko apustua. Nolabait esateko, ez da begiratzeko 'arte' bat soilik, irakurtzekoa ere bai baizik. Literaturan artearen inplosioa gertatu den bezalaxe, indar zentrifugo bat sortu da jarri duena, kontrako noranzkoan, narratiba artearen munduan, hura garatzeko eta berritzeko esparru bat eskainiz. Hala, *Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa* erakusketan, ulertzen da arteak gai izan behar duela Irudiaren Aro hau azaltzeko hitzak biltzeko, itotzen gaituen jario bisualari aurre eginez.

*Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa* aldi berean da erakusketa bat, arteak eskaintzen duen aukera narratiboari buruzko gogoeta bat eta, azkenik, abentura hori kokatzeko espazio komun baten eraikuntza. Liburuen liburu bat da; begien bistako kontakizun bat, denbora errealean. Testua testura, hitza irudi, liburu display eta erakusketa literarioa erakusketa bisual bihurtzeko prozesu hori gardentzeko xedea duen esperientzia bat.

Iván de la Nuez  
Erakusketaren komisarioa

**KOMISARIOA:**  
Iván de la Nuez

**ARTISTAK:**  
Verónica Gerber Bicecci  
Glenda León  
Gonzalo Elvira  
Cristina de Middel  
Kiko Faxas

Oier Etxeberria  
Guillem Nadal  
Alicia Kopf  
Valérie Mrejen  
Fontcuberta  
Mabi Revuelta  
Kurt Caviezel  
Xabier Salaberria

////////////////////////////////////

**Martxoak 14 > Irailak 15**

**Inaugurazioa:**

**Martxoak 14, osteguna**

19:30

Erakusketa Aretoa

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

**Orduetgia:**

Astelehenetan itxita

Asteartetik ostegunera eta

igandeak: 11:00-20:00

Ostiralak, larunbatak, jai-

egunak eta jai-egun bezperak:

11:00-21:00

////////////////////////////////////

Erakusketa hau apirilean egingo den Gutun Zuria Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdira hedatuko da.

ARTE GARAIKIDEA / AKADEMIA

MAR. 1 > 5 (ostr. > astr.)

# Laagencia

Arte proiektuen bulegoa



Bogotáko Chapinero auzoan artearen eta hezkuntzaren arloko ikerketa eta prozesuak sustatzea xede duen **Laagencia** arte-proiektuen bulegoak Akademia programaren lehen saioa gidatuko du, martxoaren 1etik 5era, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon. Programa berri horren ardatza prestakuntza eta arte garaikidea dira, eta artista eta sortzaileei begira antolatu da, komisariotzaren eta lantegien esparruan kokaturik.

**Laagencia** arte-proiektu kolektibo bat da, eta 2010eko ekainean jarri zuten abian, Chapinero auzoan, kultura arloko esperimentaziorako eta sorkuntzarako gune bat sortzeko asmoz, modu informalean. Bere ekintzen bidez, jarduera artistiko eta eratzaileri buruzko eztabaida bultzatzen du, lanerako askotariko estrategiak eta metodologiak esperimentatuz bitartekaritza-formatuak, lankidetzarako programa publikoak, auto-argitalpeneko ariketak eta beste pertsona batzuekin jarduteko modu alternatiboak proposatzeko.

Bere ikerketa propioaren eta Escuela de Garaje programa irekiaren bidez, **Laagencia** jakintza sortzeko formatuak eta jakintzaren zirkulaziorako bideak lantzea xede duten hainbat ekimen lokal, nazional eta nazioarteko asko bistaratzeko lanean ari da.

////////////////////////////////////

**Martxoak 1 > 5**  
**Osteguna > astearta**

**Lantegia 1**

**Sarrerak: Infopuntua eta**  
**www.azkunazentroa.eus**

////////////////////////////////////

 [www.laagencia.net](http://www.laagencia.net)

 [@porlosagentes](https://www.facebook.com/porlosagentes)

 [@porlosagentes](https://twitter.com/porlosagentes)

 [xlosagentes](https://www.instagram.com/xlosagentes)

# Higinia Garay

*Bigarren begiratua*



Higinia Garay artistak interbentzioa egingo du Arriquirarreko Fatxadan martxo eta maiatza bitartean, inguratzen gaituen horren gaineko 'bigarren begiratua' proposatuz. Gaur egun, bizkor doaz irudiak bata bestearen atzetik, haiei buruz gogoeta egiteko astirik eman gabe, bigarren begiratua egiteko tarterik eman gabe. Errealitatearen narratiba modura irudiak gailentzen diren gizarte honetan, ekintza bitala da, baita oldarkorra ere, haien adierazpen-ahalmenaz ohartzea, egileak dioenez.

Higinia Garay (Higi Vandis) ilustratzaile eta diseinatzaile grafiko modura ari da Bilbon, gai sozial eta feministan espezializaturiko bere estudioaren buru, 2013az geroztik. Arte Ederretako ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta aldizkariaren diseinu grafikoko master bat egin zuen Madrilgo Instituto Europeo de Diseño ikastegian, MKL design estudioan diseinatzaile-lanetan ari zela, aldi berean. Askotariko euskarriak erabiltzen ditu artistak lanerako, hala nola kartelak, dokumentalen karatulak eta diskoen azalak. Txinatar tinta eta umargoak baliatzen ditu, nagusiki, baina baditu beste teknika batzuek egindako diseinuak ere.

////////////////////////////////////  
**Martxoak 15 > Maiatzak 15**  
**Plaza Arriquirar (Fatxada)**  
**Sarrera dohainik**  
////////////////////////////////////

 [www.higinia.com](http://www.higinia.com)

 [@higinia garay](https://www.facebook.com/higinia garay)

 [@higinia garay](https://www.instagram.com/higinia garay)

«Erritmo ezin biziagoan partekatzen eta kontsumitzen ditugu irudiak. Eta ez dago irudi tolesgaberik, subjektibotasun eta asmo jakinetatik libre dagoenik. Hala, gu irudikatzen gaituena eta gure burua irudikatzeke dugun modua egia bihurtzen da, batzuetan, eta, are gehiago, baita sinestea ere. Begirada hori deseraikitzea prozesu kolektibo beharrezkoa eta, nire proiektuetan, pertsonala da. Ilustrazioa da xede hori lortzen laguntzen didan tresna, eta orobat laguntzen dit bestelako narratiba batzuk eraikitzen aniztasunaren, feminismoaren eta giza eskubideen ikuspegitik». Higinia Garay

////////////////////////////////////



**HIGINIA GARAY**  
**AKA HIGI VANDIS**

////////////////////////////////////

Fatxada programak Azkuna Zentroaren programazioa hedatzen du, espazio publikoa erabiliz, eta elkarrizketarako eta topaketarako gune berri bat proposatzen du espazio horretan.

# Cellule D'intervention Metamkine + Garazi Gorostiaga



Fotografia: Marine Lahax



Hurbileko eta nazioarteko artisten soinu-lana ezagutzera emateko antolatatu den musika esperimentalako egitarauaren barruan, Frantziako [Cellule D'intervention Metamkine](#) taldearen lana aurkeztuko dugu, 1987az geroztik zuzeneko irudiaren eta soinuaren iraultzaileak. Horiekin batera, [Garazi Gorostiaga](#) euskal artista ere izango da: Euskal Herriko musika esperimentalaren alorreko azken errebelazioetako bat da.

[Cellule D'intervention Metamkine](#) taldearen barruan, Christophe Auger eta Xavier Quérel zinemagileek eta Jérôme Noetinger musikariak irudiaren eta soinuaren arteko harremana ikertzen dute.

### Ispiluen magia, askotariko proiektoreak eta edizio irudimentsuak zuzenean erabilia, Metamkinek 'pelikula' berri bana ekoizten eta zuzentzen du bere emanaldi bakoitzean.

Kontakizun jakin baten gainean lan eginez, bat-bateko bineta-zurrunbiloak isurtzen ditu, unean bertan zinta magnetikoko zatiak maneiaturak eta sintetizagailu-soinuen bidez soinu-banda bat eraikiz. Elkarrekin hamar urtez lanean aritu diren hiru kolaboratzaile hauek irudiaren eta soinu-bandaren mugak bultzatzea lortu dute zuzeneko aurkezpenaren arloan: erabat emankizun bakarra da.

[Garazi Gorostiaga](#) musika elektronikoa, ordenagailuetan, sintetizadoreetan eta MIDIa bezalako hizkuntzetan aurkitzen du bere bizipenak, ideiak eta emozioak ezagutzeko, adierazteko eta gauzatzeko gaitasuna, eta esperimentatu egiten du haiekin. Urte askoan musika sortzen ibili izan den arren, 2016az geroztik aurkeztu izan du bere zuzeneko musika jendearen aurrean, soinu eta estilo hauetara bideraturak: ambient, drone, industrial eta, batik batik, muturreko testurak.

Hitza iristen ez den iruditeria da. Eustea eta hedatzea, kaosa eta ordena, sosegua eta indarkeria. Dena zalantzan geratzen da, izaten uztea da kontua, bidaia kosmiko mamitsu eta oniriko batean, non identitateak eta bitasunak berezko zentzua guztiz galtzen duten.

«Iraultzailea da sormenak mundua salbatuko duela dioen ideia». [Garazi Gorostiaga](#)



**Urtarrilak 9, asteazkena**

19:00

Lantegia 2

8€ / 6€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Infopuntua eta  
[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)



**FITXA ARTISTIKOA**

**Cellule d'Intervention  
Metamkine (Francia)**

Jérôme Noetinger,  
electroacoustic devices.

Christophe Auger, projectors  
16mm.

Xavier Quérel, projectors  
16mm.

**Garazi Gorostiaga (Euskadi)**



Cellule d'Intervention  
Metamkine

 [www.etamkine.free.fr](http://www.etamkine.free.fr)

Garazi Gorostiaga

 [www.garazigorostiaga.wixsite.com/  
disgrace](http://www.garazigorostiaga.wixsite.com/disgrace)

 [@garazigorostiaga](https://www.facebook.com/garazigorostiaga)

ARTE BIZIAK / DANTZA **URT. 19** (lar.)

# Lökke / Olatz de Andrés

*The Big Game*



*The Big Game* lanak xake bizidun koreografiko baten bertsio aske eta lekualdatu bat proposatzen du. Eszenako 32 interpretatzaileak jokoko piezetan daude.

Obraren oinarrian, koreografia espaziala dago, gorputz asko bizi dira batera, eta mugitzen den sistema kolektibo bat eratzen dute, izan litezkeen mila mugimendu eta bat gehiago orkestratuz. Errepresentazioaren errepresentazioa.

Sorkuntza-prozesua dantzari-taldearen muinarekin garatu da, eta azken fasean Dantzertiko (Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Eskolako) ikasle-talde batekin osatu da, aurki Azkuna Zentroan estreinaldia egiteko.

2016an Azkuna Zentroko Amphitryon programaren laguntza jaso zuen *The Endgame* piezarekin hasitako bilaketaren jarraipena da lan hau.

////////////////////////////////////

**Urtarrilak 19, larunbata**

20:00

Auditorioa

10€ / 8€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Infopuntua eta  
[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

////////////////////////////////////

**FITXA ARTISTIKOA**

**Zuzendaritza eta koreografia:**

Olatz de Andrés (Euskadi)

**Zuzendaritza eta koreografiako laguntzailea:**

Robert Jackson

**Sorkuntza eta interpretazioa:**

Pilar Andrés, Natalia G. Muro, Isabel Álvarez, Aiala Etxegarai

**Dantzertiko interpretatzaileak:**

Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Eskolako 28 ikasle.

**Argiak:** Octavio Más

**Soinua:** Marc Cano

**Jantziak:** Xabier Mujika

**ekoizpena:** Vanessa Fuentes

**Komunikazioaren diseinua eta argazkiak:** Ainara Ipiña

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako proiektua.**

**Laguntzaileak:** Azkuna Zentroa eta Dantzerti.

**Lankideak:** La Fundación, Punto de Fuga, Arropaineko Arragua, Kurtzio Kultur Etxea, Arriola Antzokia, UPV/EHU Bizkaia.

////////////////////////////////////



**LÖKKE / OLATZ DE ANDRÉS**

Dantzari eta koreografo bezala egindako ibilbidearen ondoren, Olatz de Andrések Lökke konpainia sortzen du, garapen koreografikorako egitura bat. Lökke leku imaginario bat da, posibleak bizi diren toki bat. Bere proposamen artistikoetako bilaketa ez eguneroko koreografikoak sortzean ardatzen da, gelditasuna mugimenduarekin erlazionatzean eta indibidualaren eta kolektiboaren artean dagoen tentsioarekin jolastean.

////////////////////////////////////

////////////////////////////////////

 [www.lokke.eus](http://www.lokke.eus)

 [olatz.deandres](https://www.facebook.com/olatz.deandres)

 [lokke.olatzdeandres](https://www.instagram.com/lokke.olatzdeandres)

---

**L ö k k e**

Urtarrilaren 17an, ostegunean, Lökke / Olatz de Andrések piezaren emanaldi berezia egingo du ikasleentzat.

ARTE BIZIAK / DANTZA, ANTZERKIA, PERFORMANCEA  
URT. 21 ETA 22 (astl. eta astr.)

# Matarile

## Last Call / Stage

*Daimon* pieza berrirako interpretatzaileen bila



Matarile bi interpretatzaileen bila dabil *Daimon* sorkuntza-laneko antzezlarien zerrenda osatzeko. Pieza berria Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao-n eszenaratuko da, 2019ko urriaren 10ean.

Konplizitateak lortu nahi dituen round edo interbentzio eszeniko honen deialdia bereziki zuzenduta dago dantza, antzerki eta performanceko profesionali eta, orobat, 'gorputza borrokara' jaurtitzen duten artista guztiei.

Bi eguneko iraupena izango duen round-a Ana Vallésék zuzenduko du.

«Agertokia esku hartutako espazioa izango da, arnasa hartzen duena, egokia kabalak egiteko, desadostasunak piztu, eta eraikitzekeo gaitasunak zabaltzeko.

Egoerak eraiki nahi dira itxuragabetzen den horretarako, zentzugabekeriaren ausardia izateko.

Erasoa jo, aztarna utzi eta inprimatzeko prest dauden gorputzek dena indarrez hartu, eta eraldatuko dute.

Mugimendua agerpen gisa, interpretatu ahal ditugun baina ezin uler ditzakegun esanahiz beteta eta zamatuta.

Ekintzaren eta irudikapenaren artean, bariazio guztiek dute balio, honek ere bai.

Arretaren iraupenak eta alertak neke ernea eragiten dute, eta hori hasteko modu bat da berez». Ana Vallés

Partehartu nahi duten pertsonen biografia laburra bidali behar dute azkunazentroa@azkunazentroa.eus helbidera, [urtarrilaren 4a](#) iritsi aurretik. Gaian honako hau jarritz: MATARILE. STAGE / LAST CALL

Last Call-a Azkuna Zentroan izango da [urtarrilaren 21ean eta 22an](#), 17:00etatik 21:00etara.

 [www.matarileteatro.net/stage-matarile](http://www.matarileteatro.net/stage-matarile)

 @MatarileTeatro

 #matarile\_teatro

 [www.vimeo.com/matarile](http://www.vimeo.com/matarile)

# Molly Nilsson



Berlinen bizi den [Molly Nilsson](#) artista suediarra Night Schoolek argitaratu berri duen Twenty Twenty LPko kantuak aurkeztu ditu. Hamar urte baino gehiagoz korrontearen aurka ibili eta gero, artistak haren kantuak konposatu, idatzi, ekoitzi eta nahasten ditu, oraindik orain pop sintetikoaren agertoki orokorrean gutxitan azaltzen den gisan bere burua aski duela azalduz.

Haren soinuak bakardade izugarri aberatsa ekartzen du gogora, esperientzia horretan oinarrituz eraikita dagoelako, haren hitzetan kontatzen den era berebean: egunerokotasunaren magia aurkitzen duten kantuak dira,aldi berean bakarrik egoteko gaitasuna jarrera politikotik hurbil dagoen zerbait balitz bezala irudikatzen dutenak. Baikortasun irrealaren eragiten dute haren erreperitorioak eta sentsazioek: ia jende guztiak ihes egin nahi duen egoera emozional batez gozatzerako gonbidatzen gaitu.

[Molly Nilsson](#)ek era berean aurkeztu du bere burua zuzenean ere: bakarrik, CD irakurgailu baten laguntza hutsarekin, bere kantuak bakarrik abestuz, beste inoren laguntzarik gabe. Eszenaratze hori haren nortasunaren eta autonomiaren atal bat da, eta bere kantutegiari egin ahal zaion irudikapenik onena ez gaitu.

**Night School bere ziguiluekin editatutako Imaginations azken disko ederra bizitza personalean izan dituen azkenaldiko aldaketen eta dinamiken erakusgarria da; aurreko Zenith lana baino eklektikoagoa izanik, edonola ere doinu iradokitzailak bezain distiratsuak eskaintzen jarraitu du. Horretarako, haren bi baliabide nagusiak erabili ditu: sintetizadorea eta erreberberazioa.**

Twenty Twenty (2018) lanak ere abiapuntu bera du: bakardaderik sakonenean dagoen itxaropena. Egileak berak honela definitu du bere diskoa: «lagun bat, edozein unetan harengana jotzeko modukoa». Lan horretan, guztiok barnean hartzen gaituzten gai gori-goriei buruz egiten du gogoeta, hala nola ekonomia modernoaren eta sistema kapitalistaren ankerkeriaz, eta ez ulertze emozionalari eta konpainiari diogun izu-ikaraz.

////////////////////////////////////

**Urtarrilak 25, ostirala**

21:00

**Kulturen Ataria (Igerilekuaren argi-zuloaren azpian)**

12€ / 10€ Az Txartelarekin

Sarrerak: [Infopuntua](#) eta

[www.azkunazentroa.eus](#)

////////////////////////////////////

 [www.darksbiesassociation.org/  
news-updates/](http://www.darksbiesassociation.org/news-updates/)

 [fkaWhiteBread](#)

---

Laguntzaila:



Atariko igerilekuko argizuloaren azpian, formatu intimistako kontzertuak antolatzen ditugu, pop, musika elektronikoa eta soinu eta musika aurreratuei lotuak.

ARTE BIZIAK / IRRATI-ANTZERKIA **URT. 31** (ostg.)

# Moon Produkzioak

*Las muertes de los otros*





*Las muertes de los otros* (Besteen heriotzak) gaur egun izan litekeen errefuxiatu siriar baten historia da. Mariamek Marie Curie zientzialariarengana egindako bidaia eta haren irakurketak eta hirian harrera egin zion liburuzain zaharrenekin dituen topaketak dira kontakizun honen elementuak, tartean maitasuna, desamodioa, lotzea eta aldentzea direla. Protagonistarekiko enpatia eta identifikazioko historia da funtsean. Irrati-frekuentzian zehar egindako bidaia da: aurrez grabatua eta zuzeneko ikuskizunaren dramaturgia josiz doaz, bidaiatzeko soinu-estimulu ugariarekin,aldi berean aktorearen ahotsa zuzenean igortzen den bitartean.

*Las muertes de los otros* (Besteen heriotzak) lana bitarteko dela, Moon Produksioak-ek bestelako esperientzia bat proposatzen du, antzerkia bizitzeko eta sentitzeko beste era bat. Ez da ohiko antzerki-ikuskizun bat, irrati-antzerkiaren eta eszenako konposizio plastikoaren eta zinematografikoaren arteko nahasketa bat baizik. Ikuskizun-formatu horrek piezaren baitarako funtsezkoa den intimitatea eragiten du, testuak eta intentzioak jendearrekin konplizitatea lortu behar dutelako ezinbestean.

Emankizuna irrati-frekuentzian zehar egindako bidaia da: aurrez grabatua eta zuzeneko ikuskizunaren dramaturgia josiz doaz. Hari gabeko entzungailuen bitartez, ikusleek estudioan grabatutako artelaneko musika eta testua ikusten eta entzuten dituzte.

«Nire ustez, bizitzan izan dudana gertaerarik handiena maite nituenen heriotzak izan dira, hurbileko besteak hiltzea. Pentsatzen hasita... berealdikoa da. Nolanahi ere, kontua da, dena delako arrazoiengatik, ez dudala horretan askorik pentsatu izan aurretik... Soilik jaiotzek eta heriotzek ematen dizute astindua. Inarrosi egiten zaituzte. Abiada bizian zoazela, errepidetik bazterrera botatzen zaituzte, eta erabat geldiarazten tupustean».

Moon Produksioak aretoko antzerkiko ekoizpen profesionaleko proiektu bat da, eta Fer Montoyaren zuzendaritzapean dago. *La muerte de los otros* da konpainiaren laugarren ikuskizuna, eta Siriako gerra, errefuxiatuak eta bizitza berri bati ekiteko zailtasunak ditu hizpide.

////////////////////////////////////

**Urtarrilak 31, osteguna**

**19:30**

**Auditorioa**

**12€ / 10€ Az Txartelarekin**  
**Sarrerak: Infopuntua eta**  
**www.azkunazentroa.eus**

////////////////////////////////////

**FITXA ARTISTIKOA**

**Konpainia:** Moon Produksioak  
(Euskadi)

**Actoreak:**

Marta Álvarez del Valle,  
Andrés Arias

**Lokuzioetako aktoreak:** Urko Olazabal, Itziar Lazkano, Fer Montoya, Maria Ibarretxe

**Jantziak:** Lorena Montenegro

**Soinu-espazioa:** Ibon Agirre

**Iluminazio-diseinua:** Arantza Flores, Joseba Lazkano

**Eszenografia:** lEstudioa,  
Sabina Peca, Andres Arias

**Eraikuntza eszenografikoko laguntzaileak:** Itxaso San Juan, Laura Fernandez

**Bideo-proiektzioko diseinua:**

Urko Olazabal, Fer Montoya

**Iluminazio teknikaria:** Arantza Flores

**Soinu teknikaria:** Olatz Gorrotxatagi

**Testua eta zuzendaritza:** Fer Montoya

////////////////////////////////////

 **Moon Produksioak**

 **#moonproduksioak**

ARTE BIZIAK / DANTZA **OTS. 7** (ostg.)

# Kanpai

*Sayonara Baby*



*Sayonara Baby* asiar jatetxean, elkarreraginean dihardute hainbat pertsonaia aldakor eta askotarikok, egoera absurdo eta deliranteak sortuz elkarreragin horren bidez. Ezerk ez du zentzurik, itxuraz, baina denak jarraitzen du bere bidea.

«Koreografiari nahiz dramaturgiari dagokienez, absurdoaren antzerkia dugu inspirazio-iturri, baita estetika postmodernoa eta intentsitate biziko hizkuntza darabilten zinemako erreferentziak ere», diote Kanpai taldeko kideek.

*Sayonara Baby* ikuskizunak ongi egokitzen ez diren zenbait pertsonaia erakusten dizkigu: gizartean beren tokia aurkitzeko zailtasunak dituzten pertsonaia. «Beren indargune nahiz ahuleziekin zeharo liluratzen, limurtzen eta hunkitzen gaituzten pertsonaia azaltzen ditugu».

Bakarrik dauden pertsonak, umezurtzak, maitasunerako gaitasunik ez dutenak, errealitatean eraginik txikiena sortzeko ahalmenik gabeak (beti beste nonbait, haren helmenetik kanpo).

*Sayonara Baby* giza izatearen mapa bat da, hura osatzen duten pertsonen mapa bat. Haien arteko desberdintasunak, bitxikeriak, muturrak, ohiz kanpotikoa du ardatz.

«Ikusleari gonbita egiten diogu bere unibertso txikietan murgil dadin. Pertsonaiek laguntza, konplizeak, isil-mandatariak behar baitituzte. Beren bilaketa-prozesuan galduta dabiltzan bitartean, iheskortasunarekin etsitzen dute. Fisikoki eta antzezpenaren bidez adierazi nahi dugu pertsonaiek nolako ezintasuna duten beren bizitzak behar bezala kudeatzeko, haiengandik espero den moduan jarduteko». Kanpai

////////////////////////////////////



**KANPAI**

////////////////////////////////////

Kontsultatu arte biziak programaren egitaratu osoa web orrian: [www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

////////////////////////////////////

**Ostailak 7, osteguna**

**19:30 (55')**

**Auditorioa**

**Gaztelania**

**10€ / 8€ Az Txartelarekin**  
**Sarrerak: Infopuntua eta**  
**[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)**

////////////////////////////////////

**FITXA ARTISTIKOA**

**Konpainia:** Kanpai (Euskadi)

**Jatorrizko ideia eta**

**zuzendaritza:** Natalia de Miguel eta Jorge Jauregui Allue

**Sorkuntza eta antzezpena:**

Mikel Aristegui, Niko Hafkenschied, Jorge Jauregui Allue eta Natalia de Miguel

**Jatorrizko musika:** Niko

Hafkenschied

**Argiak:** Gabriel Punzo

**ekoizpena:** Kanpai

**Diru-laguntza eman duena:**

Eusko Jaurlaritza

**Koprodukzioa:** Bilbao Eszena

**Laguntzaileak:** Pabellón 6, Urduliz Kultur Etxea

////////////////////////////////////

 **Kanpai Natalia de Miguel & Jorge Jauregui Allue**

 **#Kanpaiartimotion**

# Taku Sugimoto, Félicie Bazelaire eta Leo Dupleix + Andrea Berbois eta Garazi Navas



Taku Sugimoto, F elicie Bazelaire eta Leo Dupleix musikariek beren azken lana aurkeztuko dute musika esperimentalako Hotsetan programaren barruan. Programa horren xedea hurbileko nahiz nazioarteko artisten soinu-lanak ezagutzera ematea izanik, bertako zenbait artista ere izango ditugu gure artean, hala nola Andrea Berbois biolinista gipuzkoarra eta [Garazi Navas](#) akordeoilaria, Morton Feldman, Giacinto Scelsi eta John Cageren piezak interpretatzen.

Taku Sugimoto gitarrista, inprobisatzaile eta musikagilea, Japoniako musika esperimentalaren joera delikatuenaren ordezkaririk bikaina da, eta F elicie Bazelaire eta Leo Dupleix ohiko kolaboratzaileekin aurkeztuko ditu bere azken lanak. Bazelaire Parisen finkatutako biolontxelo-jotzaile eta kontrabaxu-jotzaileak musika klasikoa eta garaikidea ikertzen dihardu bere proiektuetan, inprobisazioaren, konposizioaren eta performancearen bidez. Dupleix paristarra, berriz, inprobisatzaile eta musikagile gisa da ezaguna, bere lanetan ordenagailuaz, ukipen-mikrofonoaz, landako grabazioez, motorrez eta askotariko objektuez egiten duen erabileragatik, batez ere.

Andrea Berbois artistak, Garazi Navas lagun duela, biolin bakarrerako Giacinto Scelsiren *L  ame ail ee* obra (1995), biolin bakarrerako Morton Feldmanen *For Aaron Copland* obra (1981) eta John Cageren *Six melodies for violin and Keyboard* (1960) obra interpretatuko ditu. Berbois biolinistak Musikenen lortu zuen gradua, zenbait talde sinfoniko eta ganbera-orkestratako kidea eta lankidea da, eta erreperitorio klasikoa eta XX-XXI. mendeetako abangoardietako musika uztartzen ditu. Era berean, musika elektroakustikoko proiektuetan parte hartzen ari da, baita diziplina arteko zenbait proiektu eszenikotan ere. Garazi Navas, bestalde, Musikeneko ikaslea da, eta ezaguna da EIOko (Euskadiko Ikasle Orkestra, 2004) akordeoilari gisa egindako bidegatik, askotariko kultura egitasmoetan – Bilbao Art District (2015) egitasmoan, esaterako– izandako partaidetzagatik, Carlos Garaicoa artistaren *Partitura* (2017) piezagatik eta BOSEko kide lankide gisa egindako lanagatik (2018).

«Biolina noten gehiegizko ugaritasunetik ateratzea. Instrumentuari hain maiz atera izan ez zaizkion erregistroak bistaratzea, denbora lasaitzea, soinua zeharkatzea, arbuiaututako konbinazioak hedatzea». Andrea Berbois

////////////////////////////////////


Otsailak 15, ostirala

19:00

Lantegia 2

8  / 6  Az Txartelarekin  
Sarrerak: Infopuntua eta  
[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

////////////////////////////////////

 [www.sites.google.com/site/feliciebazelaire](http://www.sites.google.com/site/feliciebazelaire)

 [www.japanimprov.com/tsugimoto](http://www.japanimprov.com/tsugimoto)

 [www.leodupleix.com](http://www.leodupleix.com)

# Sun Araw



Cameron Stallones aka Sun Araw kaliforniar artista eta dub joerako psikodelia tropikalaren ikertzailea Az-n izango da, John Leland perkusionistarekin batera.

Oihartzunen, sanplerreren, ahotsen, gitarra hedakorraren noten esperientzia bizi baten bidez, elektronika, psikodelia, duba, funka eta reggaea nahastuz, adimen-egoera eldarniozko eta gozagarri batera garamatza beren proposamenak.

**Sun Araw** artistaren aurretik aski zabaldua zegoen dubarekiko eta haren aldaera ugarietako miresmena. King Tubbyren esperimntuen ondoren Jamaikan jaiotako soinu-kode horren barruan, eta krautrock, psikodelia eta samplingetik hartutako tresnez baliatuta, bere hizkera propioa definitu du Austinen (Texas) jaiotako artista honek.

Aurreko paragrafoan aipatutako joerek bestelako tankera bat hartzen dute Cameron Stallonesen eskuetan: hain zuzen ere, artistak ezizen horrekin argitaratu zuen lehen bilduma, *The Phynx* (2008), mugarri erabatekoa izan zen Not Not Fun disko etxearentzat, zeina nabarmendu baita aurreko hamarraldian eta hamarraldi honen hasieran joera esperimntal iparramerikarrak zabaltzeko egindako ahaleginagatik.

**Sun Araw** M. Geddes Gengras eta The Congos jamaikar reggae-ko artista handiekin lankidetzan jardun du, RVNG Intl. etxearen eskutik (2012), eta horixe du, hain zuzen, musikari gisa osatu duen katalogo zabalaren gailurretako bat, emaitza artistiko paregabea sortu baitzuen agertoki ia sakratu batean kulturaren gaineko bi ikuspegi soinuarekin eta behe-maiztasunarekin uztartuz.

////////////////////////////////////

Otsailak 22, ostirala

21:00

Kulturen Ataria (Igerilekuaren argi-zuloaren azpian)

10€ / 8€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Infopuntua eta

[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

////////////////////////////////////

 [www.sunaraw.com](http://www.sunaraw.com)

---

Laguntzailea:



Kontsultatu Musika eta Soinua Programa osoa hemen: [www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)



ARTE BIZIAK / ANTZERKIA OTS. 24 (iga.)

# Xake Produkzioak

*Lur*





Gauza bakarra eskatzerik bazenu, zer eskatuko zenuke?

Zinegoak Bilboko Gaylesbitrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiaren 16. edizioak, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao lankide duela, Xake Produksioak taldearen Lur aurkeztuko du, trans pertsonen bizipenei buruzko antzezlan, familiei begira sortua.

Kepa Errastik idatzi du eta Getari Etxegaraiak zuzendu du *Lur*, eta Aneren abentura kontatzen du: Ane trans haurrak aitonaarekin batera izar magiko baten bila bizitakoa. Txikiengatik pentsatutako kontakizun bat da, baina helduentzat ere oso gustagarria. Errastik Chrysallis adingabe transexualen familien elkarrearen laguntza izan du gai delikatu honi buruz idazteko, betiere sentimenduen eta emozioen ikuspegitik.

**«Oso egoki publikoki adierazi duten bezala antzezanaren gaia ez da hainbeste haur transexualitatea, baizik eta norbera den bezala maitatua eta onartua izatearen beharra. Eta barneak mugitu zizkigun guri, bai, gure elkarteko familietako bizipen asko oso modu zehatz eta argian islatzea lortu dutelako taularatutako istorioan. Aukera baduzue, ez galdu harribitxi hau!».** Chrysallis Euskal Herria elkartea

Chrysallis 18 urtetik beherako trans pertsonen familiak biltzen dituen elkartea da, eta haren helburuak dira modu argi eta ulergarrian azaltzea haurtzaroko eta gaztaroko transexualitatearen fenomeno eta fenomeno hori normalizatzen laguntzea pertsona dibertsoez osaturiko gizarte batean.



**Otsailak 24, igandea**

**12:00**

**Auditorioa**

**8€ / 6€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Infopuntua eta  
[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)**



**FITXA TEKNIKOA**

**Talde artistikoa:**

Erika Olaizola, Mikel Laskurain, Kepa Errasti, Nerea Gorriti

**Zuzendaritza:**

Getari Etxegarai

**Zuzendaritzako laguntzailea:**

Xabier Ormazabal

**Argiteriaren diseinua:**

David Alcorta

**Musika-konposizioa:**

Pascal Gaigne

**Eszenografiaren diseinua:**

Eider Ibarrondo eta Isabel Acosta



[www.xakeproduksioak.eus](http://www.xakeproduksioak.eus)



[www.zinegoak.com](http://www.zinegoak.com)



ARTE BIZIAK / DANTZA **MAR. 7** (ostg.)

# Ibon Salvador & Joseph Simon

*BLUR #1 & Pseudo-chameleon*



Ibon Salvador



Joseph Simon

Ibon Salvador eta Joseph Simon artistek *BLUR #1* eta *Pseudo-chameleon* aurkeztuko dute, dantza garaikideko egonaldian Azkuna Zentroan eta Dansateliers Rotterdam zentroan egin duten lanaren emaitzak, Danimarkako dantza garaikidea sortzeko eta erakusteko zentroarekin elkarlanean eta trukean aritzeko egindako akordioari esker sortuak.

Koreografoek Bilbon aurkeztuko dituzte piezak, otsailean Herbehereetako Dantza Garaikideko Moving Futures Festival 2019 jaialdian eszenaratu ondoren.

*BLUR #1* bakarkakoa sortzeko proiektuaren abiapuntuan, gorpuztasun garaikidea jartzen da auzitan. Horretarako, kontzeptu-praktika honetan oinarritzen da: dantzariaren irudia hein batean edo erabat desegitean. Horrek galdera bat ekartzen du berehala, eszenan kokatzen den gorpuzari buruz eta hura aurkezteko (edo ez aurkezteko) moduei buruz, bistaratzeko (edo ez bistaratzeko) moduei buruz.

Bestetik, Joseph Simonek *Pseudo-chameleon* aurkeztuko du: dantzak berezkoak dituen hizkuntza guztien ezaugarriak hautemateko modua ikertzen duen proiektua.

////////////////////////////////////

**Martxo 7, osteguna**

19:30

**JOSEPH SIMON**

Lantegia 2

**IBON SALVADOR**

Auditorioa

10€ / 8€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Infopuntua eta

[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

////////////////////////////////////

**Dansateliers**

 [www.dansateliers.nl](http://www.dansateliers.nl)

 #dansateliers

 @dansateliers

 @dansateliersrotterdam

**Ibon Salvador**

 #ibonsalvador

**Joseph Simon**

 #josephsimon6962

////////////////////////////////////

**Sabadell**  
Fundación

Fundación Banco Sabadellek egonaldi artistikoen Amphitryon programa babesten du, artea eta kultura sustatzeko eta hedatzeko duen programaren barruan.

 **etxe  
pare**  
FUNDACIÓN

Praktika Artistikoen egonaldia euskal hizkuntza eta kultura mundu osotik zabaltzeaz arduratzen den Etxepare Euskal Institutuaren laguntza du.

////////////////////////////////////

**JOSEPH SIMON** (Frantzia, 1989) Simonek dantzaren eta mugimenduaren hainbat hizkuntza ikertzen ditu, gorpuzt beraren bidez, etengabe ikasiz, bai dantza urbanoekin, bai mugimendu garaikideekin. Dantza garaikidea ikasitako break dance dantzaria delarik, herrialde ugarian bizi izan da, eta lau hizkuntzatan baino gehiagotan hitz egiten daki.

**IBON SALVADOR** (Bilbo, 1980) koreografoaz gain, performerra, artista kolaboratiboa, eta Coletivo Qualquer proiektuaren sortzailea da (2008), Luciana Chierregati koreografoarekin batera. Azkenaldiko lan artistikoetan, ikertzen aritu da Salvador, sorkuntza- eta lankidetzatza-testuinguruetan garatutako berriazko tresna koreografikoekin eta ikaskuntza kolektiboko egiturekin.

////////////////////////////////////

Egonaldi artistikoen programari buruzko informazio gehiago 72. orrialdean

Lankidetzatza:

 **dans  
ateliers**

ARTE BIZIAK / MUSIKA **MAR. 22** (ostr.)

# Unclose



Iskandar Rementeriak (ahotsa, gitara, sintetizadoreak eta programazioak) eta David 'Deibol' Rodriguezek (bateria akustikoak eta elektronikoak) osatutako bikote bilbotarra da **Unclose**. Txufo Wilson (aka Empty Files) izaten dute lagun zuzenekoetan, teklatuak joz. Taldekide dira, horiekin batera, beste bi hauek ere: batetik, Jose Lastra ekoizlea eta zuzeneko teknikaria, zeinak grabatu eta nahastu dituen kantu guztiak bandaren entsegu lokalean, eta, bestetik, taldearen ikus-alderdia (argazkilaritza, bideoak, bisualak eta web honen diseinua) garatzen duen Ainara Ipiña.

Horien konposizio eta zuzenekoetan instrumentazio elektrikoaren energiak eta elektronikaren soinu aniztasunak bat egiten dute; era horretan, askotariko estiloetara hurbiltzen dira, hala nola postpunka, elektronika eta popera. 2016an argitaratu zuten haien lehenengo EPa, Runaways (Winehouse Records), kritika espezializatuan oihartzun zabala lortuz.

2017an jaio zen The Long Tomorrow LPa; Moebiusen eta Dan O'Bannonek 1975ean argitaratu zuten komiki futuristan oinarritutako izenburua zuen. Lan hori 2017ko diskorik onenen zenbait zerrendatan (Zarata Mondosonoro, Bi Fm) sartu izan dute lan hori, bai Euskal Herrian, eta bai Espainia mailan ere (Alicante Live Music).

«Unclose orainaldiz elikatzen den arren, noranzko jakina du argi eta garbi: etorkizuna. Erdi irekian, itxi gabe utzitako atearen bestaldean dagoena sumatu dute, eta euren norabidea finkatu dute. Han aurkituko dutena ezezaguna, hondagarria edo bihotz-altxagarria izango da, baina mereziko du begiratu bat egitea. Etorkizuna eta lehenaldia, bakoitza esku banatan hartuta, hemengoaren eta orainaren iheslariak dira». María Taosa (Siglo 21, Radio 3)

////////////////////////////////////

**Martxoak 22, ostirala**

21:00

Lantegia 1

10€ / 8€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Infopuntua eta  
[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

////////////////////////////////////

 [www.uncloseband.com](http://www.uncloseband.com)

 [@uncloseband](https://www.facebook.com/uncloseband)

 [@uncloseband](https://twitter.com/uncloseband)

 [@uncloseband](https://www.instagram.com/uncloseband)

 [Unclose](https://www.soundcloud.com/unclose)

---

Laguntzaila:



# Pierre Berthet & Rie Nakajima



Berthet eta Rie Nakajima. Hotsetan soinu-arteko programaren baitako musika esperimentaleko egoiliarrek musika esperimentaleko kontzertu bat egingo dute 27an, beren egonaldia buru emateko, eta kontzertu horretan aurkeztuko dute Azkuna Zentroan martxoaren 11tik 27ra egindako egonaldian sorturiko soinu-konposizioa.

Pierre Berthet (Belgika) musikaria, musikagilea eta soinu-artista da. Perkusioa ikasi zuen Georges-Elie Octorsekin; inprobisazioa Garrett Listekin; konposizioa Frederic Rzewskirekin, eta teoria musikala Henri Pousseurrekin. Soinu-instalazio eskulturalak eta objektuak konposatzen eta eraikitzen ditu, burdina, plastikoa, ura, xurgagailuak eta abar erabiliz.

Azken soinu-lanak ez ditu bakarrik egin, soinua sortzen duten instalazioak eta performanceak lantzen diharduen Rie Najajime (Japonia) artistarekin baizik. Oro har, espazio arkitektoniko berdingabeei zuzeneko erantzuna ematen diete beren lanekin, tresna zinetikoak eta aurkitutako objektuak konbinatuz.

Soinu-artisten bikote honek azpilak, ura, hondarrak, loreontziak, gitarrak, metalezko hodiak, paulownia-haziak, perlak, banbu-makilak, enborrak, hezurak, harriak... erabiltzen dituzte, eta musika eta soinu esperimentalaren erreferente izatera eraman dituen hainbat soinu-konposizio sortu dituzte horiek erabiliz.

**Kontzertuaren aurretik, martxoaren 20an, beren sorkuntza-prozesuari buruz mintzatuko dira bi artistak Bastida Aretoan egingo den hitzaldi batean. Sarrera dohainik leku guztiak bete arte.**

////////////////////////////////////  
**Martxoak 26, asteartea**  
19:00  
**Lantegia 1**  
**Sarrera dohainik**  
////////////////////////////////////

## Bosgarren Loraldia: Sentikariz blai!

### Loraldia Festibala 2019

Martxoaren 21ean [Loraldiaren](#) udaberri kulturala heltzen da Azkuna Zentroa.

Ekimen honen bidez, orain dela bost urtetik euskararen kultura barreiatzen eta sustatzen duen Jaialdiarekin bat egin dugu. Euskarazko sorkuntza artistiko garaikidea ezagutzeko eta gozatzeko hainbat musika-, hitz-, zinema- eta antzerki-ikuskitzen eta jarduerarekin.

[Kontsultatu Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon izango den Loraldiaren martxoko programa, agendan \(96 or.\) eta \[www.azkunazentroa.eus\]\(http://www.azkunazentroa.eus\) webgunean](#)

---

[Martxoak 21 > Apirilak 5](#)

Lantegia 1

Sarrerak: Infopuntua,  
[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)  
[www.loraldia.eus](http://www.loraldia.eus)

---

Ikusi Loraldiaren programa osoa  
hemen: [www.loraldia.eus](http://www.loraldia.eus)



---

## ARTE BIZIAK / ANTZERKIA

### Ados Teatroa

#### *Zapatila gorridun mutikoa*

Bilboko Udalak, Mitusu Elkartearekin lankidetzan, Arte Eszenikoak hezkuntzarako tresna gisa erabiltzearen aldeko apustua egiten du, eta ikastaro honetan jarraipena emango dio bide horri, 'Bilbon Eskolatik Antzerkira' programaren bidez.

Orain arte, ikuspegi heterosexualetik kontatuak izaten ziren haurrentzako kontakizunak. Egoera aldatzen ari da, ordea. Galdera berriak sortzen ari dira, eta erantzun berriak behar dira galdera horientzat. Ados Teatroa taldearen aburuz, berdintasuna sustatzen duten eta bizi diren munduko aniztasun afektibo-sexuala ulertzen lagunduko dieten istorioak behar dituzte haurrek.

*Zapatila gorridun mutikoa* istorioan, gauzak ustez mutikoek gustukoa duten moduan egitea gustukoa ez duen mutil baten gorabeherak kontaktzen dira. Urteek aurrera egin ahala, nerabe ezti eta ameslaria bihurtuko da mutiko hori, eta, aurrerago, heldutasunera iritsitakoan, maitasuna ezagutuko du, eta zahartzarora iritsiko da.

---

[Martxoak 26 eta 27](#)

[Asteartea eta Asteazkena](#)

9:30 - 11:30 // 55'  
Auditorioa

Hizkuntza: euskara

Ikastetxeekin itzartua

---

Programari buruzko ingormazio  
gehiago hemen: [www.mitusu.eus](http://www.mitusu.eus)







# Zinemaren historiak 50 harribitxi

**2019an, Zinematekak zeharka berrikusi nahi ditu Historiako filmik onenak**

XX. mendeko ikonografiaren zati handi baten oinarria den irudi bat eraikitzeko balio izan duten maisulan batzuekin gozatzea da zinemagintzaren historia ezagutzeko modurik onena. Ez da harritzekoa, beraz, ikusleek oro har, etxean edo zinema-aretoetan, garai bateko film hautatuen artean gaur egun ikusten dutena dagokion testuinguruan kokatu ahal izateko gomendioekin zerrenda ordenatuak edo ez hain ordenatuak ugari zabaldu izana.

Joan den mendeko zinemagintzaren historia (hasiera batean Hollywoodeko zine-estudioetatik abiatuta, baina Frantziako berrogeita hamargarren urteetan sortutako egileen teoria ere jasota) era irmoan, zuzendariaren edo ekoizlearen irudian oinarrituta, aurkezteko erabili izan diren arrakasta handiagoko beste irizpide batzuen aurrean, Zinematekako programa honetarako zinema-lanaren ezaugarri berezkoenetako bat aitortzea aukeratu dugu: haren aniztasuna. Nahiz eta urte askoan film bat Federico Fellinirena 'zelako' uste bateratua hedatu, zer eratako zinemagintza zuzendu ahal izango zuen Riminiko maisuak harekin batera Nino Rota, Giulietta Masina, Gianni Di Venanzo, Tullio Pinelli edo Marcello Mastroianni lanean aritu izan ez balira?

Egitarau honekin hasiera emango diogu Zinematekan 2019ari, historiako filmik onenen zeharkako errepasso bat proposatuz, eta geldialdia egingo dugu Federico Fellini, Jean-Luc Godard edo Agnès Varda bezalako zuzendari handien lanean. Orobat, aintzat hartuko ditugu beren garaiko ikur bihurtu ziren interpreteak -nola Marilyn Monroe, hala Charles Chaplin, nola Carole Lombard, hala Gene Kelly-, eta gidolariak, ezinbesteko eginkizuna baitute zinemagintzan. Horretarako, otsailerako hautatu ditugun artean daude Jules Furthmann edo Leigh Brackett lankidetzan aritutako filmik onenetako batzuk -aro klasikokoak-, Suso Cecchi d'Amico aparta edo Graham Greene idazle eta kritikari britainiarra.

---

## ZINEMATEKA PROGRAMA

---

8 ½ - Otto e Mezzo (1963)

Zortzi eta erdi

Urtarrilak 9, asteazkena / 17:30

Urtarrilak 10, osteguna / 19:30



Arrakasta borobil bat eskuratu ondoren, zinema-zuzendari batek sormen-krisialdian dago, eta film berri bat egiteko ahaleginetan dabil, alferrik. Egoera horretan, bizitzako gertaerarik garrantzitsuenak aztertzen hasi da, eta maite izan dituen emakume guztiekin gogoratzen.

138' / Italia - Frantzia

Z: Federico Fellini

A: Marcello Mastroianni, Claudia Cardinale, Anouk Aimée, Sandra Milo, Rossella Falk, Barbara Steele, Madeleine Lebeau, Caterina Boratto, Edra Gale, Guido Alberti

---

Cleó de 5 à 7 (1962)

Urtarrilak 9, asteazkena / 20:00

Urtarrilak 10, osteguna / 17:30



Cleo kantari gaztea egonezinik dago, azterketa mediko baten emaitzen zain. Igarle batek, hari botatako kartak irakurrita, minbizia duela iragarri dio, eta hil egin daitekeela; orduan, haren ezinegona handitu egin da. Emaitzen zain dagoen bitartean denbora betetze aldera, Aljerian soldaduska egitera abiatzekotan den soldadu gaztea ezagutu du Cleok; heriotzari dion beldurra azalduko dio soldaduari.

90' / Frantzia - Italia

Z/G: Agnès Varda

R: Corinne Marchand, Antoine Bourseiller, Dominique Davray, Dorothee Blank, Michel Legrand, José Luis de Vilallonga, Loye Payen, Renée Duchateau, Lucienne Marchand, Serge Korbe

---

My darling Clementine  
(1946)

Ena Clementine laztana

Urtarrilak 16, asteazkena / 17:30

Urtarrilak 17, osteguna / 19:30



Dodge Cityko sheriff izandako Wyatt Earp-i Tombstone hiriko komisario-lanpostua eskaini diote, baina uko egingo dio, bere anaiekin batera daukan abelazkuntzako negozioren aritzea nahiago duelako. Hala eta guztiz ere, anaietako bat erail diotenean, hutsik dagoen lanpostua onartuko du, eta anaia laguntzaile izendatu. Horrez gain, Doc Holliday izeneko jokalaria eta pistolaria adiskide eta lankide izango du.

102' / Estatu Batuak

Z: John Ford

G: Samuel G. Engel eta

Winston Miller

A: Henry Fonda, Linda Darnell, Victor Mature, Cathy Downs, Walter Brennan, Tim Holt, Ward Bond, Alan Mowbray, John Ireland, Roy Roberts

---

Sunrise (1927)

Eguntentia

Urtarrilak 16, asteazkena /

19:30

Urtarrilak 17, osteguna / 17:30



Baserritar bat pozik bizi da emaztearekin landa-lurretan. Baina hiriko emakume erakargarri bat iritsi da, eta hartaz maitemintzen hasiko da. Hortik aurrera, bera eta bere maitale berri sofistikatuaren arteko eragozpen gisa ikusten hasiko da emaztea.

94' / Estatu Batuak

Z: Friedrich Wilhelm Murnau

G: Carl Mayer, Hermann

Sudermann-en ideia batetik abiatuta

A: George O'Brien, Janet Gaynor, Margaret Livingston, Bodil Rosing, J. Farrell McDonald, Ralph Sipperly, Jane Winton, Arthur Housman, Eddie Boland

---

### À bout de souffle (1960)

Arnasestuka

Urtarrilak 23, asteazkena / 17:30  
Urtarrilak 24, osteguna / 19:30



Michel Poiccard figurante ohi bat da, Bogarten mireslea. Parisera joateko Marseillan auto bat lapurtu ostean, poliziako motor-gidari bat hilko du istripuz. Inolako barne-harrik gabe, bidaian aurrera jarraituko du. Parisera iritsi denean, Amerikan ezagutu ez zuen askatasuna aurkitu duela uste du. Hala ere, Michelek ez daki polizia haren bila dabilela, motorzalearen heriotza eragin zuelako.

90' / Frantzia

Z: Jean-Luc Godard

G: Jean-Luc Godard, François Truffaut-en ideia batean oinarrituta

A: Jean Seberg, Jean-Paul Belmondo, Daniel Boulanger, Henri-Jacques Huet, Roger Hanin, Van Doude, Claude Mansard, Liliane Dreyfus, Michel Fabre, Jean-Pierre Melville

---

### Voskhozhdeniye (1977)

Igoera

Urtarrilak 23, asteazkena / 19:30  
Urtarrilak 24, osteguna / 17:30



Bigarren Mundu Gerran, bi partisano sobietar taldetik aldendu, eta landetxe txiki batera joaten dira, hornigai bila, taldekoak gose baitira. Hala ere, alemanak lehenago iritsi direnez, okupatuta dagoen lurraldea zeharkatzen jarraitu beharko dute, beste leku baten bila, hornigaiak lortzeko.

111' / Sobietar Batasuna

Z: Larisa Shepitko

G: Yuri Klepikov, Larisa Shepitko

A: Boris Plotnikov, Vladimir Gostyukhin, Sergei Yakovlev, Lyudmila Polyakova, Viktoriya Goldentul, Anatoly Solonitsyn, Mariya Vinogradova, Nikolai Sektimenko

---

### The hitch-hiker (1953)

Autostop egilea

Urtarrilak 30, asteazkena / 17:30  
Urtarrilak 31, osteguna / 20:00



Adin ertaineko Roy Collins eta Gilbert Bowen, hiri handia atzean utzita, Mexikorantz abiatu dira errepidean aurrera. Mexiko eta AEBak bereizten dituen mugatik kilometro batzuetara, auto-stop egile bat jasotzeko proposatu dio Gilbertek Royri, eta gelditu egin dira; Emmett Myers du izena. Hasierako abegi onaren ondoren, egoera gero eta gehiago estutzen doa, ordea, Roy eta Gilbert konturatzen direnean jaso dutena gidarien artean izua eragiten ari den psikopata dela.

71' / Estatu Batuak

Z: Ida Lupino

G: Ida Lupino, Collier Young

A: Edmond O'Brien, Frank Lovejoy, William Talman, José Torvay, Sam Hayes, Wendell Niles, Jean Del Val, Clark Howat, Natividad Vacío, Wade Crosby


---

## Triumph des willens (1935)

Gogoaren garaipena

Urtarrilak 30, asteazkena / 19:30

Urtarrilak 31, osteguna / 17:30



Alemania, 1934. urtea. Urtebete lehenago iritsia zen Adolf Hitler agintera. Nurembergen, alderdi nazionalsozialista biltzar aberkoia ospatzen ari da garaipen-giroan, Alemaniako herriaren eta ariar arrazaren balioak goretsez.

114' / Alemania

Z: Leni Riefenstahl

G: Leni Riefenstahl, Walter Ruttmann, Eberhard Taubert  
A/Dokumentala: Adolf Hitler, Hermann Göring, Josef Goebbels, Reinhard Heydrich, Fritz Todt, Viktor Lutze, Robert Ley, Rudolf Hess, Heinrich Himmler

## The big sleep (1946)

Betiko loa

Otsailak 6, asteazkena / 17:30

Otsailak 7, osteguna / 19:30



Milioidun jeneral xelebren batek kontu ilun samarretan

nahastuta dabiltzan bi alaba ditu. Hori dela eta, Philip Marlowe detektibe pribatuari deitzea erabaki du, etxeko arazoak konpon diezazkion. Marlowe ikertzen hasi orduko, auziak adar askotarikoak dituela konturatuko da, nahaste-borraste korapilatsua bihurtzeraino.

114' / Estatu Batuak

Z: Howard Hawks

G: Leigh Brackett, Jules Furthman eta William Faulkner, Raymond Chandler-en eleberrian oinarrituta

A: Humphrey Bogart, Lauren Bacall, John Ridgely, Martha Vickers, Dorothy Malone, Peggy Knudsen, Regis Toomey, Charles Waldron, Elisha Cook Jr., Bob Steele

## The third man (1949)

Hirugarren gizona

Otsailak 6, asteazkena / 20:00

Otsailak 7, osteguna / 17:30



Holly Martins idazle amerikarra Vienara iritsi da Bigarren Mundu Gerraren bukaeran, ustez trafiko-istripu batean hil zen haren lagun Harry Lime kontrabandista ezagutu zuten pertsonak bilatzeko asmoz. Heriotza hori misterioak inguratzen duela dirudi, eta Martinsek ez du onik izango argitu arte.

104' / Erresuma Batua

Z: Carol Reed

G: Graham Greene

A: Joseph Cotten, Orson Welles, Alida Valli, Trevor

Howard, Paul Hörbiger, Ernst Deutsch, Erich Ponto, Siegfried Breuer, Hedwig Bleibtreu, Bernard Lee.

## Hiroshima mon amour (1959)

Otsailak 13, asteazkena / 17:30

Otsailak 14, osteguna / 19:30



Hiroshiman pelikula bat filmatu ondoren, Frantziako neska aktore batek azken gaua du hotel batean, japoniar gizon batekin. Ezezagunak dira elkarrekiko, baina gau bakar bateko abentura laburra izan zitekeena idilio bete bihurtuko da, Frantzian urte batzuk lehenago bizi izandako ezinezko maitasun bat gogora ekarriko diona.

90' / Frantzia - Japonia

Z: Alain Resnais

G: Marguerite Duras

A: Emmanuelle Riva, Eiji Okada, Stella Dassas, Pierre Barbaud, Bernard Fresson

## Shanghai express (1932)

Shangaiko espresa

Otsailak 13, asteazkena / 19:30

Otsailak 14, osteguna / 17:30



Donald Harvey kapitainak utzi zuenetik, Lily izen ona bereganatzen ari da abenturazale ospetsu gisa. Nolanahi ere, egoera egiaz korapilatuko da bi maitale ohiek Shanghaira doan trenean elkarrekin topo egiten dutenean. Hainbat herrialde eta ezaugarritako bidaiariz osatutako talde batekin partekatuko dute bidaia, eta haien artean Lilyk baztertutako merkatarizinez susmagarri bat doa.

82' / Estatu Batuak

Z: Josef von Sternberg

G: Jules Furthmann, Harry Herveyren istorio batean oinarrituta

A: Marlene Dietrich, Clive Brook, Anna May Wong, Warner Oland, Eugene Pallette, Lawrence Grant, Louise Closser Hale, Gustav von Seyffertitz, Emile Chautard, Leonard Carey

## The chase (1966)

Giza piztia

Otsailak 27, asteazkena / 17:30

Otsailak 28, osteguna / 19:30



Espetxetik ihes egin duen gizon bat bere herrira itzuli da, baina herrikideek, erabat okerrera jotako jendea izanik, benetako ehiza eragingo dute haren aurka, eurentzat jolas hutsa izango balitz bezala. Sheriffa soilik ahaleginduko da hura lintxatzea ekiditen.

134' / Estatu Batuak

Z: Arthur Penn

G: Lillian Hellman, Horton Foote-ren obran oinarrituta

A: Marlon Brando, Jane Fonda, Robert Redford, E. G. Marshall, Angie Dickinson, Janice Rule, Miriam Hopkins, Martha Hyer, Richard Bradford, Robert Duvall

## Down by law (1986)

Legearen azpian

Otsailak 27, asteazkena /

20:00

Otsailak 28, osteguna / 17:30



Zack, Jack eta Roberto ziegakideak dira espetxe batean.

Zack Dja da; Jack, putazain ziztrina, eta Roberto, turista italiarra.

107' / Estatu Batuak

D/G: Jim Jarmusch

R: Tom Waits, Roberto Benigni, John Lurie, Nicoletta Braschi, Ellen Barkin, Billie Neal, Rockets Redglare, Vernel Bagneris, Joy Houck Jr., Richard Boes.

## Il gattopardo (1963)

Lehoinabarra

Martxoak 6, asteazkena / 17:30

Martxoak 7, osteguna / 18:30



Italiaren bateratze garaia da Piamonte inguruan. Kontakizuna Palermon garatzen da, eta protagonistak Salinako printze Don Fabrizio eta haren familia dira. 1860an Garibaldiren gudarosteek Sizilia inbaditu ostean, nabarmen eraldatuko da haien bizitza. Liskarretatik ihes egiteko asmoz, familia Donnafugatan daukan landa-etxera joango da, babestera

185' / Italia - Frantzia.

Z: Luchino Visconti

G: Suso Cecchi D'Amico, Pasquale Festa Campanile, Enrico Medioli, Massimo Franciosa, Luchino Visconti  
A: Burt Lancaster, Claudia Cardinale, Alain Delon, Paolo Stoppa, Rina Morelli, Romolo Valli, Mario Girotti, Pierre Clémenti, Lucilla Morlacchi, Giuliano Gemma



## L'éclisse (1962)

Eklipsea

**Martxoak 13, asteazkena / 17:30**

**Martxoak 14, osteguna / 19:30**



Vittoriak, Riccardo bikotekidearekin izandako eztabaida sutsuaren ostean, harremana amaitzea erabaki du. Amarekin batera askatasunaz gozatzan dabilen bitartean, burtsako artekari Piero gazte erakargarria ezagutu du, limurtzaile harroputza, eta pasioz betetako maitasun-harremana biziko du harekin.

126' / Italia - Frantzia

Z: Michelangelo Antonioni

G: Michelangelo Antonioni, Tonino Guerra

A: Monica Vitti, Alain Delon, Francisco Rabal, Lilla Brignone, Rossana Rory, Mirella Ricciardi, Louis Seigner

## Modern times (1936)

Garai modernoak

**Martxoak 13, asteazkena / 20:00**

**Martxoak 14, osteguna / 17:30**



Muntatzeko katearen erritimo eroak akituta, metalgintzako langile batek burua galdu du. Ospitale batean bere onera etorri ondoren, espetxean sartu dute kasualitate hutsez manifestazio batean parte hartzeagatik. Espetxean, berriro ere asmorik izan gabe, matxinada bat kontrolatzen lagunduko du, eta, horri esker, aske geldituko da. Kanpora irtendakoan, bizirik irauteko borrokarri lotuko zaio atzera berriz.

87' / Estatu Batuak

Z/G: Charles Chaplin

A: Charlie Chaplin, Paulette Goddard, Henry Bergman, Stanley Sandford, Chester Conklin, Hank Mann, Stanley Blystone, Allan Garcia, Dick Alexander, Cecil Reynolds

## The misfits (1961)

Ez-egokituak

**Martxoak 20, asteazkena / 17:30**

**Martxoak 21, osteguna / 19:30**



Nevadako Renora dibortziatzera iritsi den Roslyn Tabor gazteak behizain zahar bat ezagutu du, eta egun batzuetan haren txabolan gelditzea erabaki. Handik denbora gutxira, mendian zaldi basati talde bat aurkituko du. Zaldiak harrapatu eta haien haragia saltzea erabakiko du, rodeoetan espezialista den behizain baten laguntzarekin.

125' / Estatu Batuak

Z: John Huston

G: Arthur Miller

A: Marylin Monroe, Clark Gable, Montgomery Clift, Thelma Ritter, Eli Wallach, James Barton, Kevin McCarthy, Estelle Winwood, Philip Mitchell, Rex Bell

## Smultronstället (1957)

Basa marrubiak

**Martxoak 20, asteazkena / 20:00**

**Martxoak 21, osteguna / 17:30**



Borg irakasleak Lund hirira joan behar du, hango unibertsitatean omenaldi bat egingo baitiote. Bere hilotza ikusi du amets batean, eta, horrekin izututa, bidaia errainarekin autoan egitea erabaki du. Erraina etxetik alde eginda dago, senarrarekin eztabaida izan baitu, horrek seme-alabarik izan nahi ez duelako. Bidaian zehar, haurra zenean oporrak igarotzen zituen etxean gelditu dira.

91' / Suedia

Z/G: Ingmar Bergman

A: Victor Sjöström, Bibi Andersson, Ingrid Thulin, Gunnar Björnstrand, Jullan Kindahl, Björn Bjelfvenstam, Naima Wifstrand, Gunnel Broström, Gertrud Fridh, Max von Sydow



## Au hasard Balthazar (1966)

Baltasar, ausaz

Martxoak 27, asteazkena /  
17:30

Martxoak 28, osteguna / 19:30



Baltasar astoak bizitzako lehen urteak alaitasunez eta umeen jolasez inguratuta emango ditu. Helduaroan, aldiz, zamalanetarako piztia bezala erabiliko dute jabe guztiek, eta tratu txarra emango diote.

95' / Frantzia - Suedia

Z/G: Robert Bresson

A: Anne Wiazemsky, Walter Green, François Lafarge, Jean-Claude Guilbert, Philippe Asselin, Pierre Klossowski, Nathalie Joyaut

## Singin' in the rain (1952)

European abestuz

Martxoak 27, asteazkena /  
19:30

Martxoak 28, osteguna / 17:30



Kathy Selden aktoregaia ezagutu aurretik, zinema mutuko Don Lockwood idoloak uste zuen den-dena zeukala: ospea, aberastasuna eta arrakasta. Baina aktore izan nahi duen emakumea ezagututakoan, bizitzan egiaz falta zitzaiona huraxe dela konturatuko da. Soinudun zinema jaiotzean, Donek musikalak filmatu nahi ditu Kathyrekin, baina bien artean Lina Lamont zinema mutuko erregina sartuko da.

103' / Estatu Batuak

D: Stanely Donen, Gene Kelly

G: Betty Comden, Gene Kelly

R: Gene Kelly, Donald O'Connor, Debbie Reynolds, Jean Hagen, Millard Mitchell, Cyd Charisse, Rita Moreno, Douglas Fowley, Madge Blake, Bobby Watson



### INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpiztitulatuak (JBGA).

Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.

+ INFO:

[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

4,5€ / 3,5€ Az txartelarekin  
Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
[www.golem.es](http://www.golem.es)

Zinema-aretoa filma ematen hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da. Ikusleei mesedez eskatzen diegu minutu batzuk lehenago etortzeko, txartelleheihatilan ilarak saihesteko.

Gainerako ikusleekin errespetuz jokatzeko, behin saioa hasi ondoren, ezin izango da aretora sartu. Ezinbestekoa bada, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok berretzat gordetzen du eskubidea programatutako jarduerak bertan behera uzteko, aldatzeko edo atzeratzeko, alde zurekin bere web-orrian jakinarazita: [www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)



### LABURDURAK

Z: Zuzendaria | G: Gidoilaria

A: Aktoreak

ARTE BIZIAK + ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK  
URT. 22 (astr.)

# La memoria del cuerpo: formas en el espacio- tiempo

*Roberto Menéndez en dokumentala*



## La memoria del cuerpo: formas en el espacio-tiempo

(Denboraren memoria: formak espazio-denboran)

dokumentalak Espainiako dantza garaikidean zehar bidaia bat egitea proposatzen digu, Espainiako Dantza Sari Nazionala irabazitako bost dantzarien bidez: Daniel Abreu, Chevi Muraday (Losdedae), Jon Maya Sein (Kukai Dantza), Sol Picó eta Carmen Werner (Provisional Danza). Filmaren ikustaldi berezia Azkuna Zentroan izango da, eta, bertan, urtea joan, urtea etorri, hamarkada bat joan, bestea etorri, dantzariak agertokira bultzatzen dituen motibazioak bistaratzen ditu Roberto Menéndezek.

Funtsean, proiektu bisuala da, hitzaldi filosofikorik eta historikorik gabea, zeinetan dantzarien mugimenduak eta eguneroko bizitza diren protagonista: dantzariak edo koreografoak nola bizi diren, nola prestatzen diren, nola sortzen dituzten haien koreografiak, nola gogoratzen diren ikuskizunetako hainbeste mugimendurekin, nola bizirauten duten konpainia batean, ikuslego zabalarentzat dantza garaikidea bezain ezezaguna izan daitekeen arlo batean.

Isa Suarez nazioarteko musikagileak sortutako jatorrizko soinu-banda magikoa dute lagun dantzarien eta koreografoen mugimenduek, eta esparru bat eskaintzen die. Gainera, nor bere emankizunean ikus daiteke, bakoitza bere estilo bereizgarriarekin; dokumentalaren luze-zabalean azaleratuko dira berezko ezaugarriak. Hauek dira ikuskizunak: Perro, Daniel Abreu; Oskara, Kukai Dantza; One-hit wonders, Sol Picó; Black Apple, Losdedae, eta Una mirada sutil, Provisional Danza.



### ROBERTO MENÉNDEZEK

Arte Ederretako ikasketak egin zituen EHU, Ikus-entzunezkoen espezialitatean,

eta Zinema Errealizazioa ere ikasi zuen Londresen. Hainbat urtez telebistan egin zuen lan Madril, erreportaje kulturaletako edo sozialetako saioetan eta dokumentaletan. Aldi berean, bere ibilbide independentea garatu zuen, zenbait dokumental eta fikziozko laburrak eginez. Haren dokumentalen artean nabarmenena *Los niños de Guernica tienen memoria* izenekoa da. Horrez gain, itzultzailea eta ilustratzailea ere bada.



Urtarrilak 22, asteartea

19:00

Auditorioa

Sarrera dohainik gonbidapenarekin (jaso Infopuntuan), eserleku guztiak bete arte



### FITXA TEKNIKOA

ekoiztutako urtea:

2018

Iraupena:

28:42 minutu

Zuzendaria, ekoizlea eta

gidoilaria:

Roberto Menéndez

Argazki-zuzendaria:

Roberto Rivas

Muntatze-lana:

Ruth Carreras

Musika:

Isa Suarez
